


karate



**federación vasca
euskal federazioa**

KATA

LEHIAKETEN ARAUDIA

EDUKIAK


SARRERA.....	3
1. ARTIKULUA: KATAKO LEHIAKETA-EREMUA.....	3
2. ARTIKULUA: JANTZI OFIZIALA.....	4
3. ARTIKULUA: KATA-LEHIAKETEN ANTOLAKETA.....	8
4. ARTIKULUA: EPAILEEN PANELA.....	12
5. ARTIKULUA: EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK.....	13
6. ARTIKULUA NORGEHIAGOKEN OPERAZIOA.....	16
7. ARTIKULUA: ERREKLAMAZIO OFIZIALA.....	17
8. ARTIKULUA: LEHIATZEKO AUTAGARRITASUNA.....	20
9. ARTIKULUA: ARAUEN TOKIKO EGOKITZAPENA.....	21
10. ARTIKULUA: ARAUETAN ESPEZIFIKOKI JASOTA EZ DAUDEN GAIAK.....	22
1. ERANSKINA: KATA-ZERRENDA OFIZIALA.....	23
2. ERANSKINA: KATA-LEHIAKETAKO KATEGORIAK.....	24
3. ERANSKINA: KATAKO ERREKLAMAZIO-INPRIMAKIA.....	25
4. ERANSKINA: GARAILE DEKLARATZEKO ETA BERDINKETAK EBAZTEKO IRIZPIDEEN LABURPEN-TAULA.....	26

SARRERA

Katako Arauen helburua Txapelketa maila guztietarako arau estandarizatuak ematea da, Munduko Karate Federazioak (WKF), WKFko Federazio Kontinentalek eta WKFko kide diren federazioek sustatzen edo aintzatetsitzen dituztelarik. Lehiaketa Arauen helburua hau bermatzea da: lehiaketen inguruko gai guztiak modu seguru, zuzen eta ordenatuan egiten dira.

1. ARTIKULUA: KATAKO LEHIAKETA-EREMUA

- 1.1 Lehiaketa-eremua karratu barrubiguna izango da, WKFk onartutakoa, zortzi metroko aldeak dituen (kanpotik neurtuta). Segurtasun-eremu libre bat egongo da alde bakoitzean, bi metrokoa.
- 1.2 Epaileak mahai baten atzean esertzen dira, tatamiaren erdira begira, AO ezkerrean eta AKA eskuinean dutela.
- 1.3 Ez du publizitate-panelik, hormarik, zutaberik eta abar egon behar segurtasun-eremuaren kanpoko perimetrotik metro bat baino gutxiagora.
- 1.4 Entrenatzaileak segurtasun-eremutik kanpo eseriko dira, dagozkien tatamiaren aldeetan mahai ofizialari begira. Tatamiaren konfigurazioak Coacheak mahai ofizialaren aurrean jartzea ezinezko egiten duenean, mahai ofizialaren alde banatan jar daitezke.
- 1.5 Ondorengo ilustrazioak lehiaketa eremuaren inguruko kokapena erakusten du.



2. ARTIKULUA: JANTZI OFIZIALA

2.1 Arbitroak eta epaileak

2.1.1 Hau izango da uniforme ofiziala:

- Jaka urdin iluna, botoi sinpleak dituen (kolore-kodea: 19-4023 TPX).
- Galtza gris argi lisoak, azpildurarik gabeak (kolore-kodea: 18-0201 TPX).
- Mahuka motzeko alkandora zuria.
- Galtzerdi lisoak, urdin ilunak edo beltzak, eta lokarrik gabeko zapata beltzak, lehiaketa-eremuan erabiltzeko.
- Gorbata ofiziala, orratzik gabe.
- Txilibitu beltz bat, nabarmentzen ez den lokarri zuri batekin.

2.1.2 Honako osagarri gehigarri hauek onartzen dira:

- Ezkontza-eraztun sinple bat.
- Izaera erlijiosoko buruko jantzia (borondatezkoa), WKFK onartutakoa.
- Urkila bat eta nabarmentzen ez diren belarritako batzuk.
- Ileak sorbaldeetatik kenduta egon behar du, eta makillajeak ez du nabarmendu behar.
- Ezingo da 4 cm baino gehiagoko takoirik erabili uniformearekin.

Guztiz debekatuta dago ofizialek erloju adimendunak eta gailu elektronikoak erabiltzea lehiaketa eremu barruan.

2.1.3 Arbitroek eta epaileek uniforme ofiziala erabili behar dute torneo, informazio-saio eta ikastaro guztietan.

2.1.4 Kirol anitzeko ekitaldietan, baldin eta kirol-arropa ematen bada arbitroentzako uniforme gisa tokiko antolamendu-batzordearen (LOC) kargura, uniforme horrek bat etorri behar du ekitaldi espezifikoarekin. Kasu horretan, epaileen uniforme ofizialaren ordean uniforme arrunt hori erabili daiteke, betiere ekitaldiaren antolatzaileak idatziz hala eskatzen badiu WKFK\EKF\FVKri eta hark formalki baimentzen badu.

2.1.5 Arbitraje-zuzendariak hala baimentzen badu, epaileek jaka kendu ahal izango dute.

2.1.6 Arbitraje Batzordeak edo Arbitro Nagusiak atzera bota dezakete araudi hau betetzen ez duen edozein ofizialen parte-hartzea.


2.2 Lehiakideak

2.2.1 WKFK/EKF/FVK-k onartutako karategi zuri bat erabili behar dute lehiakideek, marra, ertz eta brodatu pertsonalik gabe, WKFK/EKF/FVK-k berariaz baimendutakoaz gain. Karategi hori lehiaketa-buletinean zehaztuko da:

- WKFK ekitaldi ofizial guztietarako (Munduko Txapelketak eta Karate 1 - Premier League, A seriea eta Gazte Liga), karategiak sorbaldeetan eduki behar du marka brodatua, gorria edo urdina, hurrenez hurren, marrazkiaren arabera. Hau bai banakako bai ekipoetan ere aplikatzen da. Ez dago WKFK baldintzarik taldekideek Karategiaren marka bera erabiltzeko..

Oharra (EKF/FVK): sorbaldako zuriekin edo WKFK zehaztutakoekin erabili ahal izango da.

b) Karategian fabrikatzailearen jatorrizko etiketak bakarrik eraman daitezke.









c) Lurraldeko armarría edo bandera bularraren ezker aldean eraman behar da jaka gainean, eta ezin izango da 12 cm bider 8 cm-ko tamainatik gorakoa izan.

d) Gainera, batzorde antolatzaileak emandako identifikazio bat eramango da bizkarrean.

EKF/FVK



	EKF/FVK-ren PUBLIZITATEARENDAKO EREMUA 20 x 10 zm
	F.T-ren PUBLIZITATEARENDAKO EREMUA 20 x 10 zm
	KIROLARIAREN PUBLIZITATEARENDAKO EREMUA 5 x 10 zm
	EKF/FVK-RENDAKO DORTSALA 30 x 30 zm
	F.T-ren ENBLEMA 12 x 8 zm
	FABRIKATZAILEAREN MARKA ERREGISTRATUARENDAKO EREMUA 5 x 4 zm

e) Lehiakideek edo taldeek WKFK onartutako gerriko gorria (AKA) edo gerriko urdina (AO) erabili behar dute, zozketa bidez esleitzen zaienaren arabera, brodatu pertsonalik, publizitaterik edo fabrikatzailearen (WKF) ohiko etiketaz bestelako markarik gabe. Ezin dira maila-gerrikoak erabili exekuzioan zehar.

EKF/FVK: Gerrikoa brodatu pertsonalekin edo gabe baimenduta egongo da.

- f) Gerriko gorriek eta urdinek bost zentimetro inguruko zabalera eta korapiloaren alde bakoitzean hamabost zentimetro sobera izateko nahikoa luzera izan behar dute, baina izterraren luzeraren hiru laurdenetik pasatu gabe.
- g) Jakak, gerrikoarekin gerriaren inguruan bildu ondoren, aldakak estaltzeko adinako luzera izan behar du gutxienez, baina ez du izan behar izterraren hiru laurden baino luzeagoa.
- h) Emakumezko lehiakideek kamiseta zuri bat eraman dezakete karategiko jakaren azpitik.
- i) Ezin da erabili begizta egiteko zerrendarik gabeko jakarik. Jakaren zerrendek lotuta egon behar dute norgehiagokaren hasieratik.
- j) Jakaren mahuken gehieneko luzerak ez du eskumuturra gainditu behar, eta ez du besaurrearen erdia baino motzagoa izan behar.
- k) Jakaren mahukak ezin dira bildu.
- l) Galtzek gutxienez bernazakiaren 2/3 estaltzeko adinako luzera izan behar dute, eta ez dute orkatila estali behar. Galtzak ezin dira bildu.

2.2.2 WKFKren Batzorde Eragileak baimena eman dezake onartutako babesleen etiketak edo marka erregistratuak erakusteko.

- 2.2.3 Lehiakideek WKFK onartutako izaera erlijiosoko buruko jantzi bat (borondatezkoa) erabili ahal izango dute: ilea estaltzen duen zapi beltz lisoa, bai lepoa bai eztarriko eremua estali gabe utziz.
- 2.2.4 Betaurrekoak debekatuta daude. Ukipen-lente bigunak erabil daitezke lehiakidearen kontura eta arriskua hark onartuta.
- 2.2.5 Lehiakideek ilea garbi eraman behar dute, eta ilearen luzera norgehiagoken garapena ez oztopatzeko moduan. Hachimaki (diadema) ez dago baimenduta.
- 2.2.6 Debeekatuta daude ilerako orratzak edo pintza metalikoak. Debeekatuta daude zintak eta alezko edo bestelako apaingarriak. Nabarmentzen ez den goma bat edo bi erabil daitezke, motots bakar bat eginez ileari eusteko.
- 2.2.7 Debeekatuta dago baimendu gabeko artikulua, jantziak eta ekipoak erabiltzea.
- 2.2.8 Lesio baten ondorioz bendajeak, kuxinak edo euskarriak erabiltzea arbitroak onartu behar du, torneoko medikuaren aholkuari jarraituz.
- 2.2.9 Federazio kontinentalen kasuan, WKFK onartutako hornitzaile eta marketara mugatuko dira. Lurralde-federazioak WKFK onartutako ekipamendu guztia ere onartu behar du lurralde-lehiaketa guztietarako.
- 2.2.10 Baimendu gabeko edo modu desegokian dagoen ekipoarekin edo karategiarekin lehiaketa-eremuan agertzen diren lehiakideek minutu bat izango dute hura zuzentzeko, eta entrenatzaileari, Arbitro Nagusiaren txostena oinarri hartuta, entrenatzaile lizentzia eten ahal izango zaio 6 hilabeterako gehienez, dagokion txapelketaren ondorengo datatik aurrera, baldin eta ekipazioa eta jantziak aurretik berrikusi ez baditu WKFKo kontrolatzaile batek.

2.3 Entrenatzaileak

- 2.3.1 Entrenatzaileek beren federazioaren txandal ofiziala jantzi beharko dute une oro torneoan zehar, oinetakoak erabili, eta beren identifikazio ofiziala erakutsi behar dute, WKFKren ekitaldi ofizialetako dominarako norgehiagoketan izan ezik. Horietan, gizonezko entrenatzaileek jantzi iluna, oinak ezaltzen dituzten oinetakoak, alkandora eta gorbata jantzi behar dituzte, eta emakumezko entrenatzaileek, berriz, kolore iluneko soineko bat, jaka/galtzak edo jaka/gona konbinazioa erabiltzea aukeratu dezakete gehi oinetakoak. Sandaliak edo bestelako estali gabeko oinetakoak debekatuta daude
- EKF/FVK: Norberaren federazioaren txandal ofiziala norgehiagoka guztietan.**
- 2.3.2 Honako jantzi gehigarri hauek baimentzen dira:
- Ezkontza-eraztun simple bat.
 - Buruko jantzia (borondatezkoa) erlijioaren aginduz, WKFK onartutakoa.
- 2.3.3 WKFKren Lehiaketa Gainbegiraleak edo Batzorde Antolatzaileak aukera eman diezaiekete entrenatzaileei txandalaren goiko partearen ordez beren federazioko taldearen kamiseta ofiziala edo logotiporik gabeko kolore lisoko kamiseta bat erabiltzeko.

3. ARTIKULUA: KATA-LEHIAKETEN ANTOLAKETA

3.1 Alderdi orokorrak:

- 3.1.1 Kata ez da dantza bat edo antzerki-ikuskitun bat. Balio eta printzipio tradizionalak gorde behar ditu. Errealista izan behar du borrokari dagokionez, eta kontzentrazioa, energia eta inpaktu potentziala erakutsi behar ditu bere teknikan. Indarra, potentzia eta abiadura erakutsi behar ditu, baita harmonia, erritmoa eta oreka ere.
- 3.1.2 Kataren edozein lehiaketa lehiakide bat beste lehiakide baten aurka (edo talde bat beste baten aurka) borrokatzea da. (Bata besteare aurkako lehiaketa). Banakako lehiakideak edo taldeak AKA (gorria) edo AO (urdina) gisa izendatzen dira. Kolorea zozketa bidez esleituko da.
- 3.1.3 AKA gisa esleitutako lehiakidea edo taldea arituko da lehendabizi.
- 3.1.2 Lehiakideek une oro bete behar dituzte Epaile Buruak emandako jarraibideak.

3.2 Definizioak

- 3.2.1 “Bout”, lehia, lehiakide batek beste baten aurka kata egitea.
- 3.2.2 “Match”, taldeen arteko lehia, kata bat egitea talde bat beste talde baten aurka, bunkaia barne dominetarako lehia baldin bada.
- 3.2.3 “Multzo” terminoa erabiltzen da izendatzeko bakarkako lehiaketan Round robineko fasean 8 multzoetako (edo gehiagoko) baten parte hartzen duten lehiakide guztiei, edo Taldekako lehiaketan 5 taldek osatzen duten multzoari.
- 3.2.4 “Pool” terminoa kategoria bateko lehiakideen kopuru osoaren bi erdietarako erabiltzen da. Dominen lehian aurrera egiteko bi bideak osatzen dituzte.

3.3 Lehiaketa-formatuak

- 3.3.1 Kata-lehiaketa hainbat formatutan antola daiteke:
- Banakako edo taldekako **kanporaketa gehi bigarren aukerako** sistema (lehiaketan aurkakoa adierazi ezean erabilitako sistema).
 - Round-robin kanporaketa sistema, multzoka eta jarraian kanporaketak, bai bakarka edo taldeka. (Premier Leagueko banakako lehian eta Munduko Senior Txapelketan erabilia, bai banakakoak bai taldeak).
 - Bi taldeko Round-robin kanporaketa-sistema (kirol anitzeko jokoetarako erabilia).
EKF/FVK: Esandako formatuez gain, berraukera bidezko kanporaketa-sistema ere aplikatu ahal izango da.
- 3.3.2 Kata-lehiaketan, taldekako eta banakako norgehiagokak egoten dira. Taldekako norgehiagokak 3 edo 4 lehiakideko taldeen arteko lehiaketak dira; talde horietatik 3 aldi berean lehiatzen dira. Talde bakoitza soilik gizonetzkoena edo soilik emakumezkoena da. Banakako Kata-lehiaketan, gizonetzkoek eta emakumezkoek banatuta egiten dituzte banakako jarduerak. Kategoria ofizialen zerrenda 2. ERANSKINEAN dago. Txapelketa jakin batean arau hauetan deskribatutakoak bestelako aldaketa bat aplikatuko bada lehiaketa-formatuan, argi eta garbi jakinarazi behar da txapelketaren buletinean.

3.4 Serieburuak eta exekuzio-ordena

- 3.4.1 Munduko Txapelketetarako (Bigarren fasea) eta Karate 1- Premier Leaguerako, WKFren Munduko Rankingean sailkatutako lehen lau lehiakideak, lehiaketa-eguneko aurreko agunean presente daudenak, rankingaren arabera bereiziko dira.
- 3.4.2 Senior Taldeen Munduko Txapelketetarako, aurreko Senior Taldeen Munduko Txapelketako 3 talde dominadunak (urra, zilarra eta brontzea) eta brontzezko galtzailea izango dira multzoko buruak.

[**Trantsizio-oharra:** Budapest 2023ko ekitaldiaren osteko Taldekako lehen Munduko Txapelketetarako, multzoko buru izango dira brontzezko dominaren bi irabazleak, brontzezko irabazlearen eta brontzezko finalaren galtzailearen ordezkari izan ere, Budapest Taldekako azken Munduko Txapelketa da, brontzezko bi dominekin.]

3.5 Taldekako Kata

- 3.5.1 Kata-taldeak 3 edo 4 lehiakidez osatuta daude, eta horietatik 3 txanda bakoitzean lehiatzen dira. Talde batek 4 lehiakide dituenean, 3etako edozein erabil daiteke edozein txandatarako. Talde bakoitza soilik gizonetako edo soilik emakumeetako da.
- 3.5.2 Taldekako Katan, hiru taldekideek norabide berean eta epaileei begira hasi behar dute Kataren exekuzioa.
- 3.5.3 Taldekideek gaitasuna eta sinkronizazioa erakutsi behar dituzte Kataren alderdi guztietan.
- 3.5.4 Taldekako Katak lehiaketako dominarako norgehiagoketan, taldeek hautatu duten Kata ohiko moduan egingo dute. Gero Kataren esanahiaren (Bunkai) erakustaldia egingo dute.
- 3.5.5 Ez dago agurrik Kataren eta Bunkairen artean. Bi elementuak jarduera beraren parte dira.
- 3.5.6 Kata eta Bunkai erakustaldi konbinatua egiteko onartzen den denbora 5 minutukoa da guztira.
- 3.5.7 Kronometratzaile ofizialak atzerako kontaketa hasiko du taldekideek Kata hasteko agurra egiten dutenean, eta Bunkairen exekuzioaren ondorengo amaierako agurrean geldituko du kronometroa.
- 3.5.8 Bunkai egitean kontzientzia galdu izanaren itxurak egitea desagokoa da: lurrera botata geratu ondoren, lehiakideak belaun bat altxatu behar du edo zutik jarri behar du 2 segundutan.
- 3.5.9 Bunkai egitean, debekatuta dago lurrera botatzeko lepoaldean artaziaren eraispen-teknika (Kani Basami) erabiltzea, baina baimenduta dago gorputzean edo zangoetan erabiltzeko teknika gisa.

3.6 Kanporaketa gehi bigarren aukeraketa

- 3.6.1. Kanporaketa gehi bigarren aukeraketa sisteman, lehiakideak/taldeak bi pool-etan banatzen dira, eta pool bakoitzean, berriz, lehiakideak/taldeak elkarren aurka arituko dira, harik eta pool bakoitzeko irabazlea finalerako sailkatu arte. Bi finalisten aurka galtzen dutenek bi pool berri osatuko dituzte, eta pool bakoitzean bi lehiakide/talde geratzen diren arte lehiatuko dira brontzezko bi dominen lehian.

3.7 Round-robin kanporaketa sistema (multzoka eta jarraian kanporaketak): bakarkako eta taldekako lehian

- 3.7.1 Lehiakideek edo taldeek elkarren aurka jokatuko dute, beren aukerako kata bat eginez. Taldekako dominen topaketetarako berriz, kataz gain Bunkai batek ere osatuko du aurkeztutako lana.
- 3.7.2 Round-robin banakako lehiaketan 4 lehiakideko taldeak erabiltzen dira. Gehienez 32 parte-hartzaile 4 lehiakideko 8 multzotan banatzen dira. Zortzi multzo bakoitzeko irabazlea final-laurdenetara, finalerdietara eta finalera igaroko da. Finalaurdenetan eta finalurrekoetan finalisten aurka galdu dutenek brontzezko dominengatik lehiatzen dira.
- 3.7.3 Banakako Munduko Txapelketako 1. fasean, Round-robinetako fasean, 6, 8, 12 edo 24 multzotan banatzen dira lehiakideak, izena eman duten pertsonen arabera. Talde bakoitzeko irabazleak eta bigarren onenek 6 bikote osatuko dituzte Munduko Banakako Txapelketako 2. faserako 6 sailkatze postuetan lehiatzeko.
- 3.7.4 Seniorren Taldekako Munduko Txapelketarako, Round-robin erabiliko da, eta ondoren finalerdiak eta finala. Multzo bakoitzari 5 talde esleituko zaizkio. Gero, talde bakoitzeko irabazleak finalerdietan eta finalerdiak lehiatuko dira. Taldekako fasearen ondoren, taldeko irabazleak finalerdietara pasatuko dira. Han, partidako irabazleak finalera joango dira, eta galtzaileak, berriz, brontzezko dominarengatik lehiatuko dira. Finalaren irabazleak urrezko domina jaso du; galtzaileak, berriz, zilarrezko domina. Brontzezko dominan norgehiagoka irabazi duenak brontzezko domina eskuratuko du, eta talde galtzaileak ez du dominarik jasoko.
- 3.7.5 Pool bakoitzeko irabazlea eta txapeldunordea irabazitako "bout/matches" kopuruaren arabera zehazten dira. Garaipen kopurua berdina bada, berdinketa ebatziko da 5. artikuluaaren arabera.
- 3.7.6 Norbanakoen arteko norgehiagokan, final-laurdenetan eta finalerdietan finalisten aurka galdu dutenak brontzezko dominak lortzeko lehiatuko dira (bat 1-4 moltzoentzan eta bestea 5-8 multzoentzat). Taldekako lehiaketarako, finalistekin galdu duten taldeak brontzezko domina bakarra lortzeko lehiatuko dira.
- 3.7.7 Round-robin horretan, baliteke lehiakide edo talde bat deskalifikatua izatea portaeraren bat dela eta, eta oraindik ere lehiaketan jarraitzea. Hala, guztien arteko norgehiagoka osatu ahal izango da. Kasu horretan, aurkariak irabazi egiten du match hori, eta beste topaketen emaitzak ez dira aldatuko.
- 3.7.8 Dagoeneko sailkatuta dagoen lehiakide indibidual bat deskalifikatzen bada, jokabide txarragatik, round-robin fasearen azken itzulian (SHIKKAKU):
- Final laurdenetako aurkaria bye bidezko finalurrekora ("walkover") iritsiko da.
 - Gainerako lehiakideak beste final-laurdenetan lehiatuko dira.
- 3.7.9 Dagoeneko sailkatuta dagoen talde bati round-robin rondaren amaieran (SHIKKAKU) jokabide txarra ematen bazaio:
- Finalerdiko aurkaria bye bidezko finalurrekora ("walkover") iritsiko da.
 - Beste bi taldeak lehiatuko dira beste finalurrekoan. Irabazlea finalera joango da, eta galtzaileak brontzezko domina eskuratuko du.
- 3.7.10 Taula honetan erakusten dira multzoei esleitutako lehiakideak (32-3 artean) eta Round-robin kanporaketa-sistemaren sailkapenaren zehaztapena, hurrengo txandaren arabera:

Lehiakideen / Multzoen kopurua	Lehiakideak multzo bakoitzeko								Oharrak	
8 multzo	1	2	3	4	5	6	7	8	24-32 lehiakideren partaidetza	
Rankinga	6	3	7	2	5	4	8	1		
32	4	4	4	4	4	4	4	4	Multzo bakoitzeko lehenengoa sailkatuko da	
31	4	4	4	4	4	4	4	3		
30	4	4	4	3	4	4	4	3		
29	4	3	4	3	4	4	4	3		
28	4	3	4	3	4	3	4	3		
27	4	3	4	3	3	3	3	4		3
26	3	3	4	3	3	3	4	3		
25	3	3	3	3	3	3	4	3		
24	3	3	3	3	3	3	3	3		
6 multzo	1	2	3	4	5	6	7	8		18-23 lehiakideren partaidetza
Rankinga	6	3		2	5	4		1		
23	4	4		4	4	4		3	Multzo bakoitzeko lehenengoa eta bi bigarren onenak sailkatuko dira	
22	4	4		3	4	4		3		
21	4	3		3	4	4		3		
20	4	3		3	4	3		3		
19	4	3		3	3	3		3		
18	3	3		3	3	3		3		
5 multzo	1	2	3	4	5	6	7	8		17 lehiakideren partaidetza
Rankinga		3		2	5	4		1		
17		3		3	4	4		3	Multzo bakoitzeko lehenengoa eta 3 bigarren onenak sailkatuko dira	
4 multzo	1	2	3	4	5	6	7	8	12-16 lehiakideren partaidetza	
Rankinga		3		2		4		1		
16		4		4		4		4	Multzo bakoitzeko lehenengoa eta bigarrena sailkatuko dira	
15		4		4		4		3		
14		3		4		4		3		
13		3		3		4		3		
12		3		3		3		3		
3 multzo	1	2	3	4	5	6	7	8		9-11 lehiakideren partaidetza
Rankinga		3		2				1		
11		4		4				3	Multzo bakoitzeko lehenengoa eta bigarrena sailkatuko dira, bai eta bi hirugarren onenak ere	
10		4		3				3		
9		3		3				3		
2 multzo	1	2	3	4	5	6	7	8	6-8 lehiakideren partaidetza	
Rankinga				2				1		
8				4				4	Multzo bakoitzeko lehenengoak eta bigarrenak finalerdiak egingo dituzte zuzenean	
7				4				3		
6				3				3		
multzo 1	1	2	3	4	5	6	7	8		6-8 lehiakideren partaidetza
Rankinga								1		
5								5	Multzoko lehenengoaren eta bigarrenaren arteko finala, eta norgehiagoka bakarra	
4								4		
3								3		

3.7.11 Bi lehiakideak edo taldeak akats teknikoengatik deskalifikatzen badira domina baten “bout/match”ean, biek kata gehigarri bat egingo dute emaitza zehazteko. Hori taldeei badagokie, ez da Bunkai eskatuko.

3.8 Round-robin kanporaketa sistema (bi multzotan)

3.8.1 Hainbat kiroltako jokoetarako, hala nola joko kontinentaletarako, Joko Olinpikoetarako edo beste hainbat ekitalditako kiroltarako, lehiaketaren formatua ekitaldi bakoitzerako zehaztuko da, modalitateen arabera, parte-hartzearen murrizketa barne.

3.9 Kata-lehiaketa 14 urtetik beherakoentzat

Ez dago arau estandarrekiko desbideratze espezifikorik, baina Kata-zerrenda muga daiteke hain aurreratuak ez diren Katetara.

3.10 Coaching

3.10.1 Munduko Txapelketetan, Katakoko entrenatzaileek Federazioko ordezkaritza batean parte hartu behar dute, eta behar den entrenatzaile maila izan behar dute, lehiakide baten partidan ari denean.

4. ARTIKULUA: EPAILEEN PANELA

4.1 WKFren lehiaketa ofizial guztietarako, txanda bakoitzerako zazpi epaileko panela ausaz izendatuko da programa informatiko bat erabiliz.

EKF/FVK: 7, 5 edo 3ko epaile panela izan daiteke.

4.2 Tatami bakoitzerako epaile bat izendatuko da Tatamiko buru, eta bere gain hartuko du software-teknikariarekin eskatzen zaion edozein komunikazio egiteko eta epaileen artean ustekabeko edozein arazo konpontzeko lidergoa.

4.3 Epaileak hautatzea eta kanporaketa-txandetarako panelak esleitzea: Arbitraje Batzordeko idazkariak tatami bakoitzerako erabilgarri dauden epaileen zerrenda emango dio zozketa elektronikoko sistema erabiltzen duen softwareko teknikariari. Zerrenda hori Arbitraje Batzordeko (AB) idazkariak egingo du lehiakideen zozketa amaitutakoan eta Arbitroen briefingaren amaieran. Zerrenda horretan informazio-saioan dauden epaileek bakarrik agertu behar dute, eta lehen aipatutako irizpideak bete behar dituzte. Gero, epaileen zozketarako, softwareko teknikariak zerrenda sisteman sartuko du, eta aldi bakoitzean tatamirako zazpi epaile hautatuko dira ausaz epaileen panel gisa.

4.4 Dominarako norgehiagoketan, tatamiko buruek zerrenda bat emango diete RCko presidenteari eta RCko idazkariari; bertan zerrendatuko dituzte beren tatamian kanporaketa-txanda amaitu ondoren erabilgarri dauden ofizialak. RCko presidentek zerrenda onartutakoan, softwarearen teknikariari emango zaio, sisteman sar dezan. Gero, sistemak ausaz esleituko du epaileen panela, zazpi epaile bakarrik izango dituen.

4.5 Softwareko teknikariaz eta emaitzen iragarleaz gain, taldekako lehiaketetarako, dominarako txandetako panelak kronometratzaile bat ere badu, exekuzioaren gehieneko denboraren jarraipena egiteko.

4.6 Komenigarritzat jotzen bada, emaitzen iragarlea eta ebaluazio elektronikoko sistema erabiltzen duen softwareko teknikaria pertsona bera izan daitezke.

4.7 Gainera, antolatzaileek WKF/EKF/FVKren Kata-zerrendarekin ohituta dauden mezulariak jarri behar dituzte lehiaketa-eremu bakoitzerako, txanda bakoitzaren aurretik lehiakideek hautatutako Katak bildu, erregistratu eta zerrenda softwareko teknikariari eraman diezaioten. Tatamiko buruak du mezularien lana gainbegiratzeko ardura.

5. ARTIKULUA: EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

5.1 Katen zerrenda ofiziala

5.1.1 WKF/EKF/FVKren Kata-zerrenda ofizialeko Katak bakarrik egin daitezke. Kata-zerrenda ofiziala 1. ERANSKINEAN dago.

5.1.2 Kata batzuen izenak bikoiztuta daude, erromanizazioan ohikoak diren aldaketa ortografikoengatik. Zenbait kasutan, Kata bat beste izen batekin ezagut daiteke, estiloaren arabera (Ryu-ha), eta, kasu berezietan, izen bera izan daiteke estiloaren arabera desberdina den kata bat.

5.2 Beharrezko kata-kopura

5.2.1 Printzipioz, lehiakide edo talde batek kata bat egin behar du txanda bakoitzerako. Hala ere, ez dira bost (5) kata baino gehiago behar lehiaketa bat osatzeko. Partaideek seigarren txanda behar badute irabazteko, aurretik egindako kata bat errepikatu ahal izango da (seigarren partida honetan bakarrik), baldin eta bi aldiz jarraian kata bat errepikatzen ez bada, partida batean eta gero beste batean. Printzipio bera aplikatu beharko litzateke irabazteko zazpigarren erronda behar izanez gero.

5.2.2 14 urtetik beherakoentzako lehiaketetan ez dira lau (4) kata baino gehiago behar, eta aurreko errepikapen-araua bosgarren txandatik aurrera aplikatuko da, eta errepikapen gehiago onartuko dira, aurreko printzipio berari jarraituz gero, ondorengo txandetarako.

5.2.3 Lehiatzaile/talde bakoitzak txanda bakoitzerako zer kata erabili aukeratzeko askatasuna du, betiere dagokion kata txanda bakoitzerako iragartzen bada eta errepikapenerako aurreko arauak betetzen badira. Kata errepikatzekoa aukera bat besterik ez da, eta ez dio inongo lehiakide edo talderi galarazten txanda bakoitzerako kata berri bat egitea, irabazteko behar diren txanden kopurua edozein dela ere.

5.3 Ebaluazioa

5.3.1 Exekuzioa ebaluatzean, kontuan hartuko da Kataren hasierako agurretik Kataren amaierako agurrera arte, taldekako dominarako lehiaketetan izan ezik. Izan ere, halakoetan exekuzioa –kronometrajea bezala– Kataren hasierako agurrarekin hasten da, eta exekuziogileek Bunkai osteko agurra egiten dutenean amaitu.

5.3.2 Aldaketa txiki bat egin daiteke, lehiakidearen karate-estiloaren (Ryu-ha) arabera.

5.4 Puntuazio-sistema

5.4.1 Jarduerak 5.0tik 10.0ra bitarteko eskala erabiliz puntuatzen dira, 0.1eko gehikuntzetan: 5.0 izango da egindakotzat jotzen den Kata baten puntuaziorik baxuena, eta 10.0 Kata-jarduera perfektuaren puntuazioa. Deskalifikazioak 0.0ko puntuazioarekin adierazten dira.

EKF/FVK: Puntuazioa, bai tablet, bai kartulina bidez eman ahal izango da. Bestetik, lehiaketa formatua berraukera bidezko kanporaketa-sistema bada, ebaluaketa bandera bidez emango da.

5.4.2 Sistemak puntuaziorik altuenak eta baxuenak ezabatuko ditu.

EKF/FVK: Epaille panela 3koa bada ezik.

1. EPAILEA	2. EPAILEA	3. EPAILEA	4. EPAILEA	5. EPAILEA	6. EPAILEA	7. EPAILEA	8. EPAILEA
7.6	7.6	8.2	7.7	7.5	7.8	8.1	38.8

5.4.3 Katari ematen zaion garrantzi bera eman behar zaio Bunkai jarduerari.

5.5 Erabakia

5.5.1 Partida baten emaitzak zazpi epaileetatik bostek emandako puntuetan oinarritzen dira, puntuazio altuena eta baxuena kenduta.

5.5.2 Puntuazioa berdina bada, bien artean lortutako puntuaziorik baxuena ere sartuta puntuaziorik altuena duena izango da irabazlea (7 epaileetatik 6k emandako emaitzak).

Hau da, kendutako 2 puntuazio minimoen arteko puntuazio altuena kontuan hartuta.

5.5.3 Berdinketak badirau, puntuaziorik altuena duena izango da irabazlea, emanaldian lortutako puntuazio baxuena eta altuena sartu ondoren (7 epaileek emandako emaitzak).

Hau da, kendutako 2 puntuazioen arteko altuena hartuko da kontuan.

5.5.4 Puntuazioa berdina bada 7 epaileak sartu ondoren, 7 epaileetatik boto gehien lortu dituen izango da irabazlea.

5.5.5 Round-robinen irabazitako partida bakoitzeko, lehiatzaileak/taldeak 3 puntu irabaziko ditu eta galtzaileak zero puntu, ez da berdinketarik onartuko.

5.5.6 Kalifikatzeko erabilitako eskala uniformeki aplikatzeko, honako hau aplikatuko da gida gisa:

- 10 Perfektua
- 9 - 9.9 Bikaina
- 8 - 8.9 Oso ona
- 7 - 7.9 Maila ona
- 6 - 6.9 Onargarria
- 5-5.9 Ez-nahikoa
- 0 Deskalifikazioa

5.6 Ebaluazio-irizpideak

KATAREN EXEKUZIOA	BUNKAI EXEKUZIOA (taldeen exekuzioei aplikagarria dominarako norgehiagoketan)
1. Posizioak 2. Teknikak 3. Trantsizio-mugimenduak 4. Timing-a eta sinkronizazioa 5. Arnasketa egokia 6. Kontzentrazioa (KIME) 7. ADOSTASUNA: Adostasuna da kontsistentzia egotea Katan estiloko (RYU-HA) KIHONaren exekuzioan. 8. Indarra 9. Abiadura 10. Oreka	1. Posizioak 2. Teknikak 3. Trantsizio-mugimenduak 4. Timing-a eta distantzia (Ma-Ai) 5. Kontrola 6. Kontzentrazioa (KIME) 7. Katarekiko adostasuna. Katan egiten diren benetako mugimenduak erabiltzea. 8. Indarra 9. Abiadura 10. Oreka

5.7 Faltak

Begi-bistakoak izanez gero, honako falta hauek kontuan hartu beharko dira:

1. Kata iragartzea agurra baino lehen
2. Oreka-galera arina.
3. Mugimendu bat gaizki egitea edo osorik ez egitea, hala nola blokeo bat erabat huts egitea edo ukabil-kolpe bat helmugatik kanpo ematea.
4. Mugimendu sinkronizatu gabea, hala nola gorputz-trantsizioa osatu baino lehen teknika bat egitea, edo, taldekako Kataren kasuan, mugimendu bat batera ez egitea.
5. Kataren exekuzioa ebaluatzean, epaileek falta oso larritzat –aldi baterako oreka-galera zigortuko litzatekeen maila berean– jo behar dituzte honelakoak: lurra oinekin kolpatzea; zaplada bat ematea bularrean, besoetan edo karategian; edo arnasketa desegokia.
6. Kataren jardueran gerrikoa gerritik askatzeraino lasaitzea.
7. Exekuzioaren aurretik denbora galtzea, martxa luzatzea barne, agur gehiegi edo etenaldi luzeak egitea.
8. Bunkai egitean teknikak ez kontrolatzeagatik lesioa eragitea.
9. Une horretan kontzientzia galdu izanaren itxurak egitea 2 segundo baino gehiago Bunkairen parte gisa.

5.8 Deskalifikazioa

Lehiakide edo talde bat deskalifikatu dezakete arrazoi hauetako edozein dela-eta:

1. Kata ez iragartzea, okerreko Kata iragartzea edo aldeztatik mahai ofizialari iragarritakoaz bestelako Kata bat egitea.
2. Agurra ez egitea Kataren exekuzioaren hasieran edo amaieran.
3. Kata epaileei begira ez hastea.
4. Etenaldi edo geldialdi argia exekuzioan zehar.
5. Mugimenduak gehitzea edo ez egitea, edo jatorrizko formaren interpretazioa nabarmen aldatzea.
6. Oreka-galera argia, erortzea edo berreskuratzeko urratsa egitea eragiten duena.
7. Gerrikoa erortzea jardueran zehar.
